



Ref.:

SEGURTASUN SAILA
Segurtasun Sailburuordetza
Trafiko Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE SEGURIDAD
Viceconsejería de Seguridad
Dirección de Tráfico

6/2021 INSTRUKZIOA (TLB-6 / E-6)

GAIA: EAEn zirkulazio-murrizketak dauden datetan eta ibilbideetan zirkulatzeko baimen bereziak

Zirkulazio segurua eta arina bermatzeko beharrezkoa denean edo ingurumenarekin lotutako arrazoiak daudenean, besteak beste, zirkulazio-neurriak edo zirkulazio-murrizketak ezarri ahal dira, orokorrak edo ibilgailu zehatz batzuetarako baino ez; Trafikoari, Ibilgailu Motordunen Zirkulazioari eta Bide Segurtasunari buruzko Legearen (urriaren 30eko 6/2015 Leg.ED) testu bateginak 18. artikuluan eta Zirkulazio Erregelamendu Orokorrak (azaroaren 21eko 1428/2003 ED) 37. eta 39. artikuluetan ezartzen dutenaren arabera.

Hori dela eta, Eusko Jaurlaritzaren Trafiko Zuzendaritzak urtero ematen du urtean zehar trafikoa arautzeko neurri bereziak ezartzen dituen ebazpena. Neurri horien artean daude ibilgailu batzuek, data zehatz batzuetan, bide zehatz batzuetatik zirkulatzeko murrizketak.

Horregatik, indarrean dagoen Ebazpenak, horren aurrekoek bezala, bere lehen atalean zirkulazio-murrizketak ezartzen dizkie ibilgailu hauei:

- a) Salgai arriskutsuak garraiatzen dituztenei,
- b) Salgaiak garraiatzen dituzten eta 7.500 kg-tik gorako GMB edo ITGMB duten ibilgailuei,
- c) ZBO behar duten ibilgailuei eta ZBO behar ez duten ibilgailu bereziei.

Dena den, Ebazpenak berak, murrizketa ezarrita daukan ibilgailu-multzo bakoitzerako, salbuespenak jasotzen ditu, baita baimen bereziak emateko aukera ere, lehen aipatutako ibilgailuek zirkulazio-murrizketak dauden datetan eta bideetan zirkulatu ahal izan dezaten, baldin eta nahitaezko zerbitzuak egin beharra dagoela behar bezala justifikatuta badago.

a) Salgai arriskutsuei dagokienean, urteko ebazpenak ezartzen du bere III. eranskinean jasotzen diren salgaiak, eranskin horretan zehazten diren baldintzetan, garraiatzen dituzten ibilgailuak salbuetsita daudela.

Donostia - San Sebastian, 1 – 01010 VITORIA-GASTEIZ

Tef. 945 01 87 44 – Fax 945 01 87 50

Este documento es una representación del original disponible a través del **localizador** y la **sede electrónica** indicados al pie de página.
Dokumentu hau jatorrizkoaren irudikapen bat da, orri-oinean adierazitako **lokalizatzailearen** eta **egoitza elektronikokoaren** bidez eskuragarri dagoena.



LOKALIZATZAILEA / LOCALIZADOR: J0D0Z-T2RXZ-CJZT

EGOITZA ELEKTRONIKOA / SEDE ELECTRÓNICA: <https://euskadi.eus/lokalizatzailea> / <https://euskadi.eus/localizador>

SINATZAILE / FIRMANTE: SONIA DIAZ DE CORCUERA RUIZ DE OÑA | 2021/05/13 08:15:19

III. eranskineko bigarren puntuan jasotzen diren salgai arriskutsuak badira, zirkulazioa baimendu ahal izango da.

b) Salgaiak garraiatzen dituzten eta 7.500 kg-tik gorako GMB edo ITGMB duten ibilgailuei dagokienean, urteko ebazpenaren IV. eranskinean zerrendatzen diren salgaiak etengabe egongo dira murrizketak betetzetik salbuetsita. Gainerako salgaien garraioa baimendu ahal izango da.

c) ZBO behar duten ibilgailuen eta ZBO behar ez duten ibilgailu berezien barruan, urteko ebazpenaren IV. eranskinean jasotzen diren funtzioak egiten dituzten edo salgaiak garraiatzen dituzten ibilgailuei ez zaizkie zirkulazio-murrizketak aplikatuko. Eranskin horretan jasota ez dauden kasuetan, zirkulazioa baimendu ahal izango da.

Instrukzio honen eta bere eranskinen xedea da zirkulazio-murrizketak dauden egun eta aldietan zirkulatzeko baimen bereziak emateko irizpideak ezartzea eta baimen horiek emateko prozedura ere bai.

Instrukzio honek ondorioak izango ditu 2021eko maiatzaren 17tik aurrera.

Sonia Díaz de Corcuera Ruiz de Oña
TRAFIKOKO ZUZENDARIA

I. Eranskina "Baimen berezia emateko irizpideak"

Zirkulazio baimena emateko, irizpide hauei jarraituko zaie

a) Ibilgailuak:

Urteko ebazpenak ezartzen dituen murrizketen eraginpeko ibilgailu edo ibilgailu-talde guztiei eman ahal zaizkie:

- Salgai arriskutsuak garraiatzen dituzten ibilgailuei;
- Salgaiak garraiatzen dituzten eta 7.500 kg-tik gorako GMB edo ITGMB duten ibilgailuei;
- ZBO behar duten ibilgailuei eta ZBO behar ez duten ibilgailu bereziei.

Urteko ebazpenean jasotako salbuespena aplikagarri zaien ibilgailuek, zirkulazio-murrizketak dauden egun eta ibilbideetan zirkulatzeko, ez dute baimen berezirik behar.

b) Eskatzailea (interesduna):

REATen garraio-baimenaren titular gisa agertzen dena, ibilgailuaren titularra edo ibilgailuaren errentamendu-kontratuaren titularra ere izango dena.

Atzeritarren kasuan, erkidegoko garraio-lizentziaren titularra edo, Europar Batasunetik kanpoko herrialdeetakoak badira, horren baliokidea den dokumentuaren titularra.

Ibilgailu bereziak badira, ibilgailuaren titularra edo ibilgailuaren errentamendu-kontratuaren titularra izango da.

c) Indarraldia

Aldi baterako edo bidaia bakar baterako eman ahal dira. Baimenaren aldia Trafiko Zuzendaritzaren ebazpenak zirkulazio-murrizketak ezarrita dituen data horietako bakoitzean zirkulatzeko nahitaezkoa delako egiaztapenaren menpe egongo da, beti ere baimena eskatzen den aldiaren barruan.

Irizpide bera erabiliko da eskaera beraren barruan data baterako baino gehiagorako baimena eskatzen bada.

d) Baimena ematea eragingo duen kausa

Baimenak emango dira, baldin eta baimena eskatzen den egun bakoitzean nahitaezko zerbitzuak egin beharra dagoela behar bezala justifikatuta

badago. Hori premiazko zat hartu behar da, baldin eta hala dela egiaztatzen bada.

Esaterako, premiazkoa dela egiaztatuko da honelako kasuetan:

- a. Industria-zentroen, osasun-zentroen edo beste zentro batzuen etengabeko funtzionamendurako nahitaezkoak diren salgaiak garraiatzeko.
 - b. Salgai arriskutsuak edo galkorrak portuetatik, aireportuetatik edo beste leku batzuetatik garraiatzeko.
- e) Urteko ebazpenaren bidez zirkulazio-murrizketak dauzkaten bideak.

Eskabidean agertzen den ibilbidearen barruan, Trafiko Zuzendaritzaren Ebazpenaren bidez ibilgailu zehatz batzuei ezarritako zirkulazio-murrizketen eraginpeko bide bat edo gehiago egon ahal dira. Ibilbidearen deskribapenean jatorria, helmuga eta ibilbidea osatzen duten bide guztiak agertuko dira. Eskaera bakoitzean ibilbide bat baino gehiago sartu ahal izango da.

- f) Baimenaren datuak

Baimen bakoitza ibilgailu bati edo ibilgailu-talde bati eman behar zaio eta horretan datu hauek agertu behar dira: ibilgailuaren edo ibilgailu-taldearen matrikula eta ezaugarri nagusiak, garraiatzen den salgaia, eraginpeko bideak eta garraio-baldintzak.

II. Eranskina "Izapidetzea"

I.- Bulego izapidetzailea.

- Baimen-eskaerako ibilbidea, zirkulazio-murrizketa ezarrita daukana, hasten den edo igarotzen den lurraldeko Lurralde Bulegoa da eskuduna.
- Eskabideak esleitzea.
- ✓ Eskabideak bulego eskudunari esleitzean, Tramitaguneko espediente-kodea erabiliko da eta DM/LB/UU (FR/OT/AA) formatua izango du:
 - DM: zirkulazio-murrizketak dauden datetarako baimenaren identifikatzailea.
 - LB: bulego izapidetzailearen lurralde-identifikatzailea.
 - UU: eskabidea aurkeztu den urtearen azken bi digituak.

II.- Izapidetze elektronikoa

- Elektronikoki izapidetu behar dute legez horrela izapidetzerara behartuta daudenek eta beren ordezkaritza Ahalordetzen Erregistro Elektronikoa eman dutenek. Gainerako interesdunentzat izapidetze elektronikoa borondatezkoa da (39/2015 Legearen 14. art.)
- Interesdunentzako sargunea Eusko Jaurlaritzaren Egoitza Elektronikoa izango da, www.euskadi.eus/egoitza-elektronikoa, Nire Karpeta, hain zuzen.

III.- Eskabidea

- Eskabidea eskuragarri egongo da Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoa, ez beste inon, eta hauen bidez sartu ahal da: www.trafikoa.eus edo www.euskadi.eus/egoitza-elektronikoa. Eskabidea telematikoki aurkeztu ahal da edo aurrez aurre Zuzeneaneko bulegoetan.

IV.- Dokumentazioa:

- Ibilgailuen Erregistroan inskribatuta egon ezean, ibilgailuen zirkulazio-baimena (Espainian matrikulatu gabeko ibilgailuak).
- Ibilgailuen errentamendu-kontratua, baldin eta Ibilgailuen Erregistroan inskribatuta ez badago edo ibilgailua garraio-baimenari lotuta ez badago.
- Premiazko edo nahitaezko zerbitzuak egin beharra dagoela justifikatzen duen dokumentua.
- ADR ziurtagiria (ibilgailuek salgai arriskutsuak garraiatzen badituzte).

- Ordezkaritza: Hori bakarrik eskatuko da, interesduna elektronikoki izapidetzera behartuta ez badago edo beren ordezkari Ahalordetzen Erregistro Elektronikoa eman ez badu.

V.- Tasa:

- Ordainketa-gutuna aterako da, eskabideari alta eman ondoren eta izapidetu aurretik.
 - Tramitagunek sortu eta Nire Karpeta igoziko du, elektronikoki izapidetzen bada. Aurrez aurre izapidetuz gero, ordainketa-gutuna posta elektronikoz igoziko da.
- Interesdunek ez dute nahitaz ordainketa-agiria aurkeztu behar, hori SIPCAN kontsulta baitaiteke, baimena atera aurretik. Ordainketa-agiria aurkeztu nahi badute, Nire Karpeta bidez edo aurrez aurre aurkeztuko dute.

VI.- Jakinarazpena:

- Tramitagunek beti Nire Karpeta igoziko ditu interesdunari jakinarazi beharreko izapideak, nahiz eta interesdunak paper bidezko izapideak aukeratu (39/2015 Legearen 41.6 art.). Paper bidezko izapideetan, gainera, posta bidezko jakinarazpenak Tramitaguneren bidez egingo dira.

VII.- Hutsen zuzenketa:

- Beharrezkoa izanez gero, interesdunari eskatuko zaio aurkeztutako eskabideko edo justifikazioko datuak zuzentzeko. Errekerimenduari kasu egin ezean, interesdunak atzera egin duela ulertuko da.

VIII.- Ebazpena:

- Ebazpenak eskabidea onartu edo ukatuko du, edo interesdunak atzera egin duela deklaratu du.

IX.- Errekurtsoa.

- Ebazpenaren aurka gora jotzeko errekurtsoa jarri ahal da Trafikoko zuzendariaren aurrean.